

**AURREKONTU EGONKORTASUNA ETA FINANTZA IRAUNKORTASUNARI BURUZKO LEGEDIA
BETETZEARI BURUZKO TXOSTENA.**

Kontu-hartzaile naizen aldetik, txosten honen bidez jakinarazten ditut, tokiko entitate hau osatzen duten eta administrazio publikoko izaera duten entitateei dagozkien datuak, aurrekontu egonkortasuna eta finantza iraunkortasunaren legedia betetzeari buruz.

ARAUDI APLIKAGARRIA:

- 2/2012 Lege Organikoa, apirilaren 27koa, Aurrekontu Egonkortasunari eta Finantza Iraunkortasunari buruzkoa.
- 1/2013 Foru Araua, otsailaren 8koa, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzen duena, eta hau garatzen duten jarraibideak.

2016ko aurrekontuaren likidazioak, aipatu legeak xedatzen duena bete behar du:

- 1. erregela, Aurrekontu egonkortasunaren helburua: defizita zero izatea.
- 2. erregela, Zor publikoaren helburua: zor bizia sarrera arrunten %95 baino txikiagoa izatea.
- 3. erregela, Gastuaren araua: 2015eko aurrekontuaren likidazioarekiko gastu ez finantzarioaren hazkundera %1,80 baino handiagoa ez izatea.

Txosten honetan ebaluatu diren erakundeak:

- Hernaniko Udala.
- Ereñotzu Toki entitate txikia (menpeko erakundea).
- Hernaniko Udaleko Zerbitzu Sozialak (menpeko erakundea).
- Garbitania Zero Zabor SL (kapital publikoa duen sozietatea).

HERNANIKO UDALA ETA MENPEKO ERAKUNDEAK

1. erregela. AURREK EGONKORTASUNA	Hernani Udala	Zerbitzu Sozialak	Ereñotzu	Konsolidatua
1-7 gastu:	23.960.716,18	7.661.819,29	451.084,70	29.806.796,16
1-7 sarrerak:	27.248.157,88	7.825.689,64	416.566,29	33.223.589,80
Aurrekontu oreka:	3.287.441,70	163.870,35	-34.518,41	3.416.793,64
	POSITIBOA	POSITIBOA	NEGATIBOA	POSITIBOA
O fasea finantzatzeko erabilitako gerakina:	1.749.374,16	98.498,05	136.229,66	1.984.101,87
Aurrekontu oreka (gerakina kenduz):	5.036.815,86	262.368,40	101.711,25	5.400.895,51

- Hernaniko Udalak eta Zerbitzu Sozialak betetzen dute.
- Ereñotzu Toki Entitateak ez du betetzen, baina Diruzaintzako Gerakinaren erabilerarengatik da.
- BETETZEN DA, kontuak kontsolidatu ondoren.

2. erregela. ZOR PUBLIKOAREN HELBURUA

Zor bizia 2016-12-31:	1.458.336,80
Eskubide likidatuak-2015	32.062.149
Zorpetze maila %:	4,55%

BETETZEN DA. Zorpetze maila arauak ezartzen duena baino nabarmen txikiagoa da.

3. erregela. GASTUAREN ARAUA

2015ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	30.602.938,86	a1
SEC doiketak[1]	0	a2
2015eko interesak	3.204,38	a3
Finantzaketa lotua duen gastua 2015ean	6.034.154,51	a4
2015eko gastu konputagarria	24.565.579,97	a=a1+a2-a3-a4
2016ko gastu ez finantzarioa (kap:1etik 7ra)	29.806.796,16	b1
SEC doiketak[2]	0,00	b2
2016ko interesak	9.639,02	b3
Finantzaketa lotua duen gastua 2016an	5.028.979,13	b4
Araudian eta kudeaketan egindako aldaketan eragina		b5
2016ko gastu konputagarria	24.768.178,01	b=b1+b2-b3-b4-b5
Gastu konputagarriaren bariazioa	0,82%	d1=(c/a-1)*100

BETETZEN DA.

GARBITANIA ZERO ZABOR SL

- Kapital publikoa duen sozietatea da:

Hernaniko Udala	250 akzio	250.000 €	49,90%
Usurbilgo Udala	130	130.000 €	25,95%
Astigarragako Udala	121	121.000 €	24,15%

- Saillkatu gabeko sozietatea da.
- Urteko emaitze eta kontuak, martxoaren 31n ospatuko den Administrazio Kontseiluak ontzat eman ondoren, Sozietate legeak xedatzen duen moduan, ekainaren 30a baino lehen ospatu beharko den Akziodunen Batzarrak onartu beharko ditu.

Aztertu dira urteko kontuak (eranskinean) :

- 2016an, 49.099,46 etekina izan du. Ondorioz, aurrekontu oreka betetzen du.
- Ez du epe luzeko zorrik.

KONKLUSIOA:

- Aurrekontu egonkortasun helburua betetzen da.
- Gastu arauaren helburua betetzen da.
- Zor publikoaren helburua.

Hernani, 2017ko martxoaren 23an
Kontu-hartzailea